



## Nork egin dezake posta-zerbitzuan alta emateko eskaera?

Irakasle.eus posta elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko sare publikoko irakasleentzat da, eskaera egiteko unean jardunean ari badira.

## Nola har dezaket posta-zerbitzuan alta?

<http://www.irakasle.eus> web orrian, erabiltzailearekin eta pasahitzarekin identifikatzeko laukiaren azpian, badago argibideak zehatz-mehatz ematen dituen esteka bat **“ALTA EMATEKO ARGIBIDEAK”**.



Zure etxean gutun ziurtatua jasoko duzu, lau zifrako PIN kodearen eta zure langile-zenbakiaren berri ematen dizuna. Ondoren, posta elektronikoa sisteman alta eman ahal izango duzu. Horretarako, <http://www.irakasle.eus> orriko **Posta Erabiltzailearen Alta** botoian klik egin ezazu.

## Zein datu behar dira posta-zerbitzura sartzeko?

Hezkuntza Saileko irakasleen posta elektronikoko zerbitzura sartzeko, bi datu behar dira:

- Posta-sistemara sartzeko **erabiltzailea**, alta ematean aukeratu den posta elektronikoaren helbidearekin bat datorrena (adib.: [erabiltzailearen izena@irakasle.eus](mailto:erabiltzailearen_izena@irakasle.eus)).
- Erabiltzaileak, zerbitzuan alta ematean, aukeratu duen **pasahitza**.

## Nola sar naiteke posta-zerbitzura?

Posta-zerbitzura bi modutan sar daiteke:

- **OWA (webmail) sarrera erabiliz**. Interneteko edozein nabigatzailetatik zure posta-kontura sartzeko aukera ematen dizu. Postara sartzeko, zure erabiltzailearekin eta pasahitzarekin sar zaitez <http://www.irakasle.eus> web orrira eta **Zerbitzuak** menuan dagoen **Irakasleriaren posta elektronikoa** botoian klik egin ezazu.



- **Microsoft OUTLOOK 2010 posta elektronikoko bezeroa erabiliz**. Web toki honetan ere kontsultatu ahal dira posta elektronikoko bezero hauek erabiltzeko eskuliburuak.

## Zein da posta elektronikoko zerbitzura nabigatzaile baten bidez sartzeko web helbidea?

<http://www.irakasle.eus> estekaren bidez sartuko da posta-zerbitzura.

## Nire posta-kontuan zenbat espazio dut?

Posta elektronikoaren sistema erabiltzen duten guztiek 1 GB-ko gutxieneko kuota dute, posta elektronikoaren mezuak postontzian gordetzeko. Horri dagokionez, **ezabatutako elementuak, bidalitako elementuak edo zirriborroak** karpetetan gordetako mezuek ere, espazio fisikoa okupatzen dutela azpimarratu behar da.

## Ezin diet mezu bat helbide-liburuko guztiei bidali.

Segurtasun-arrazoiengatik, mezu bat jaso ahal duten hartzaileen gehienezko kopurua mugatu da.



## Ezin dut mezu bat erantsitako oso fitxategi handi batekin bidali.

Sistema konfiguratzeko moduagatik, mezu bakoitzaren gehienezko tamaina 10 Mb-ra mugatu da. Zure mezua beste mezu txikiago batzuetan zatitzea gomendatzen dizugu.

## Ez dakit pasahitza edo ahaztu zait. Nola lortuko dut?

Bi era daude:

- **Webaren bidez** lor daiteke zure erabiltzailearen pasahitza (sartzeko posta-helbidea, nahiz NANA erabili). <http://www.irakasle.eus> orrira joan behar duzu → **Pasahitza eskuratzea (edo berreskuratzea)**, eta han agertzen diren argibideei kasu egin behar diezu.



- Halaber, [hezkontza@irakasle.eus](mailto:hezkontza@irakasle.eus) **posta-helbidearen bidez** lor dezakezu, izena, deiturak, NANA eta posta-helbidea adieraziz. Hezkuntza Sailak eskaeran adierazi duzun posta-helbidera posta ziurtatuaren bidez bidaliko dizu informazioa.

**Pasahitza berriarekin posta elektronikoko sistemara sartzen naizenean, berehala aldatu behar dudala esaten didan leiho bat agertzen zait.**

Pasahitza erabiltzaileak besterik ezagutzen ez duela ziurtatzeko, Hezkuntza Sailak eman dizun pasahitza iraungita dago. Posta-zerbitzura sartzen zaren lehen aldiaren derrigorrez aldatu beharko duzu. Pasahitza aldatzeko aukera ematen dizun interfazea web da eta, horregatik, lehenengo aldiz <http://www.irakasle.eus> orriaren bidez sartu behar duzu derrigorrez.

**Pasahitza aldatzen saiatzen naizenean, sistemak ez duela konplexutasun-politika betetzen adierazten dit.**

Erabiltzaileen pasahitzek onartzeko moduko segurtasun-maila dutela ziurtatzeko, derrigorrez zortzi karaktere edo gehiagoko luzera izan behar dute eta zenbaki eta letrek osatuta egon (pasahitza horretan gutxienez letra eta zenbaki bana tartekatuko dira).

**Hamar alditan baino gehiagotan sartu dut pasahitza baina ezin naiz postara sartu.**

Segurtasun-neurri gisa, erabiltzaile batek pasahitza hamar alditan gaizki sartzen badu, haren kontua automatikoki blokeatzen da eta ezin da posta-sistemara sartu. Desblokeatzeko, Hezkuntza Sailak zure eskura jartzen duen Erabiltzaileentzako Arreta Zentroarekin (EAZ) jarri behar duzu harremanetan, 945 207 256 telefonoan.

**Ba al dago pasahitzak iraungitzeko politikarik?**

Ez da erabiltzailea aldizka pasahitza aldatzera derrigortzen duen politikarik inplementatu, gomendatzeko moduko praktika den arren. Hartu den neurria iraungitako pasahitza entregatzearena da, erabiltzaileak geroago aukeratutako pasahitzaren konfidentziasuna bermatzeko.

**Posta elektronikoen aurreko sisteman POP3ren edo IMAPen bidez sartu ahal nintzen baina orain ezin.**

Posta elektronikoen sistema berriak ez du POP3 edo IMAP protokoloen bidez sartzeko aukerarik ematen. Bakarrik OWA interfazearen bidez edo Microsoft OUTLOOK 2010 posta-bezeroa erabiliz sartu ahal da.

**RPC HTTPSren gainean erabiltzeko, gure PCak bete behar dituen baldintzak:**

Bezzeroaren eskuliburuan zehazten dira eta horrela laburtzen dira:

- Windows XP, Windows 7 edo Windows 10.
- Outlook 2010 posta-bezeroa edo goragoko bat.

**Non lor dezaket Microsoft OUTLOOK 2010 posta-bezeroa?**

Hezkuntza Sailak ez du ematen Microsoft OUTLOOK 2010 posta-bezeroa; erabiltzaileak baldin badu, erabili ahal izango du edo bestela, bere kabuz eskuratu ahal izango du.

**Zein da adierazitako posta-bezeroen kostua?**

Microsoft Outlook 2010 Microsoft-ek ematen duen bezero bat da eta, lortzeko, ordaindu behar da. Prezioa ezagutzeko, jar zaitez harremanetan zure ohiko banatzaile informatikoarekin.

**Non kontsultatu ahal dut posta elektronikoko bezeroak konfiguratzeko gida bat?**

Ondorengo esteketan daude eskura posta-bezeroak erabiltzeko gidak:

➤ **OWAren eskuliburua:**

<http://posta.irakasle.net/publico/manuales/OWA%20-%20Erabiltzailearen%20eskuliburua.pdf>

➤ ***https-ei buruzko RPCren eskuliburua:***  
<https://posta.irakasle.net/publico/manuales/RPC%20-%20Erabiltzailearen%20eskuliburua.pdf>

**Microsoft OUTLOOK 2010 posta elektronikoko bezeroa konfiguratzeko arazoak badituz, norengana jo behar dut?**

Arazoa konpontzeko, derrigorrez jarri behar duzu harremanetan Hezkuntza Sailak zure eskura jartzen duen Erabiltzaileentzako Arreta Zentroarekin (EAZ), 945 207 256 telefonoan.

**Posta elektronikoa Microsoft OUTLOOK 2010 posta elektronikoaren bezeroaren bidez erabiltzeko arazoak badituz, norengana jo behar dut?**

Arazoa konpontzeko, derrigorrez jarri behar duzu harremanetan Hezkuntza Sailak zure eskura jartzen duen Erabiltzaileentzako Arreta Zentroarekin (EAZ), 945 207 256 telefonoan.

**Non kontsultatu ahal dut OWA interfazea erabiltzeko gida bat?**

Esteka honetan eskura dago OWA postara sartzeko interfazerako erabiltzailearen gida:

<https://posta.irakasle.net/publico/manuales/OWA%20-%20Erabiltzailearen%20eskuliburua.pdf>

**Posta elektronikoa OWArekin interfazearen bidez erabiltzeko arazoak badituz, norengana jo behar dut?**

Arazoa konpontzeko, derrigorrez jarri behar duzu harremanetan Hezkuntza Sailak zure eskura jartzen duen Erabiltzaileentzako Arreta Zentroarekin (EAZ), 945 207 256 telefonoan.

**OWArekin bidez sartzen naizenean, zergatik agertzen dira euskaraz karpeta batzuk eta menuaren aukerak gaztelaniaz (edo alderantziz)?**

Nabigatzailearen hizkuntzaren aukeretan konfiguratu da OWA interfazearen hizkuntza (jakiteko nola, OWArekin erabiltzailearen gida kontsulta ezazu).

OWAra lehen aldiz sartu eta sistema-karpeta batzuk sortzen dira, une horretako nabigatzailearen hizkuntzan sortu ere. Nahiz eta geroxeago sartzeko hizkuntza bestela konfiguratu, karpeta haien hizkuntza ez da aldatuko. Ezintasun teknikoengatik ez da gerora aldaketarik egingo.

**Zein da Erabiltzaileentzako Arreta Zentroaren telefonoa eta zerbitzua emateko ordutegia?**

Erabiltzaileei arreta emateko zerbitzua astelehenetik ostegunera egongo da zure eskura 8:00etatik 17:30era, eta ostiraletan 8:00etatik 15:00etara, 945 207 256 telefonoan.

Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 19a